

“KULTUR BIRIKA” ERAIKINEKO APARKALEKU PLAZEN APROBETXAMENDU BEREZIARENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

1.- IZAERA ETA OINARRIA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauak xedatzen duenarekin bat etorriz, Derioko Udalak “Kultur Birika” lur azpiko aparkaleku publikoko plazen aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa ezarri du.

2.- ZERGAPEKO EGITATEA

Tasaren zergapeko egitate da “Kultur Birika” lur azpiko aparkaleku publikoko plazen udal jabari publikoko aprobetxamendu berezia.

3.- ZERGAPEKOAK

Ordenantza honetan araupetutako tasa ordaindu behar dute “Kultur Birika” eraikinean turismo, motozikleta, ziklomotor, karabana eta autokarabanentzako aparkaleku plazen aprobetxamendu berezirako baimena duten pertsonak edo erakundeak, edo horretarako baimena izan ez arren, aprobetxamendua gozatzen dutenek.

4.- APARKALEKUAK

Ordenantza honetan ezarritako tarifak bakar-bakarrik aplikatuko zaizkie “Kultur Birika” lur azpiko aparkaleku publikoan ibilgailuen establezimendurako erabilera berezia arautzen duen ordenantzan zehaztuta dauden aparkalekuko plazei.

5.- ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO ERA

5.1.- Ordaindu beharreko tasa izango da Eranskinean dagoen tarifa.

2.- Tarifa berdina izango da aprobetxamendu unitate guztientzat, azalera edozein dela ere.

3.- Tasa hilekoka ordainduko da, hileko bakoitzeko lehenengo 15 egunen barruan.

6.- ORDAINTZEKO BETEBEHARRA

1.- Ordenantza honetan araupetutako tasa ordaintzeko beharra honela sortzen da:

a) Baimen berrien emakidak direnean, aparkaleku plazaren erabilera berezirako baimena ematen den unean.

b) Lehenik baimendutako emakida edo aprobetxamenduak direnean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

2.- Tasa baldintza hauetan ordainduko da:

a) Aprobetxamenduko emakida berriak direnean, ordainketa zuzenean egingo da Udaleko Diruzaintzan edo Udalak ezartzen duen lekuan, betiere aparkalekuko plazaren erabilera bereziko baimena jaso baino lehen.

b) Lehenik baimenduta eta luzatuta zeuden aprobetxamendurako emakidak direnean, tasa honen erroldan sartuta egon eta gero, urtero, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik kasuan kasu ezartzen den moduan.

3. Baja aurkeztu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera indarrean sartuko da. Aurka alegatzen den arrazoa edozein izanik, baja ez bada aurkezten abonatuak tasa ordaintzen jarraitu beharko du.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2017ko urriaren 24an eginiko bileran onetsi da, indarrean sartuko da 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarrean jarraituko du berau aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean. Ordenantza Fiskal honen aldaketa partzialik egitekotan, aldatu gabeko artikuluek indarrean jarraituko dute.

Tasaren arauketan aurrekontuei buruzko Foru Arauek edo zuzenean aplikatzekoak diren beste edozein arau edo xedapenek sartzan dituzten aldaketek, bidezkoa bada, kasuan kasuko isilbidezko aldaketa eragingo dute Ordenantza Fiskal honetan.

I. ERANSKINA. TARIFAK

BAKARRA36,31€/partzela/hilabete